| **21.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.** | **21.- PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACION.** |
| Kontratazio-organoak ondoren adierazten diren eskumenak dauzka, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera: | El Órgano de contratación, de conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público, 9/2017, de 8 de noviembre, ostenta las siguientes prerrogativas: |
| a) Kontratua interpretatzea.<br>b) Kontratua betetzearen inguruko zalantzak ebaztea.<br>c) Kontratua aldatzea, interes publikoko arrazoiengatik.<br>d) Kontratua azkentzeko erabakia hartzea eta ondoreak zehaztea. | a) Interpretación del contrato.<br>b) Resolución de las dudas que ofrezca su cumplimiento.<br>c) Modificación del contrato por razones de interés público.<br>d) Acordar la resolución del contrato y determinar los efectos de esta. |
| Kontratistari entzun egin beharko zaio eta aurreikusitako izapideak egin beharko dira. | En todo caso se dará audiencia al contratista, debiendo seguirse los trámites previstos . |
| **22.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.** | **22.- CALIFICACION DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES.** |
| Behin proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, garaiz eta behar bezala jasotako dokumentazioa kalifikatzen hasiko da Mahaia (“A” gutun-azala), eta, akats materialik aurkituko balu, hiru egun baliodunekoepea emango lioke lizitatzaileari akatsok zuzentzeko. | Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa procederá a la calificación de la documentación recibida en tiempo y forma (sobre "A"), concediendo, si observase defectos materiales en la misma, un plazo de tres días hábiles para que el licitador subsane el error. |
| Aurkeztutako eskaintzak (“B” gutun-azala) ekitaldi publikoan irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengo asteazkena baliodunean, 19:00etan, postaz bidalitako | Las ofertas presentadas (sobre "B") serán abiertas en acto público el siguiente miércoles hábil al de la finalización del plazo de presentación de proposiciones a las 19:00 horas, salvo en el caso de envío por correo |

| | |
|---|---|
| proposamenen kasuan izan ezik; azken horietan, Estatuko Kontratazioko Araubide Orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.<br><br>Proposamenak irakurri ondoren, beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu Mahaiak, proposamenok Agiri honetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera baloratzeko.<br><br>Ondoren, eta hala badagokio, dagozkion txosten teknikoak jaso eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipena egin behar duen Kontratazio-organoari aurkeztuko dio esleipen-proposamena, haren irizpenerako.<br><br>**23.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.**<br><br>Kontratazio-organoak honako errekerimendua egingo dio eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari: errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasita bost egun baliodunen epearen barruan, aurkez dezala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea justifikatzen duen dokumentazioa, edo bestela, eman diezaiola baimena Kontratazio-organoari ziurtapen hori zuzenean eskuratzeko; bestalde, Kontratazio-organoak eskatuko dio lizitatzaileari justifika dezala benetan kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzeko hartutako konpromisoa betetzeko baliabideak dituela<br><br>Behin eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliodunen epearen barruan esleitu beharko du kontratua.<br><br>Inola ere ezingo da hutsik utzi lizitazio bat, agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren edo proposamenen bat dagoenean. | en que se estará a lo dispuesto en el Reglamento General de Contratación del Estado.<br><br>Tras la lectura de las proposiciones, la Mesa podrá solicitar cuantos informes técnicos considere precisos, para la valoración de las mismas con arreglo a los criterios y a las ponderaciones establecidas en este Pliego.<br><br>Posteriormente y previos los informes técnicos oportunos, en su caso, la Mesa de Contratación elevara la propuesta de adjudicación del contrato al Órgano de Contratación que haya de efectuar la misma.<br><br>**23.- ADJUDICACION Y FORMALIZACION.**<br><br>El Órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la oferta más ventajosa para que, dentro del plazo de cinco días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones Tributarias y con la Seguridad Social o autorice al Órgano de contratación para obtener de forma directa la acreditación de ello, de disponer de efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al articulo 64.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.<br><br>Recibida la documentación solicitada, el Órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.<br><br>En ningún caso podrá declararse desierta una licitación cuando exija alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego. |

| | |
|---|---|
| Esleipena arrazoitu egin behar da, eta izangai edo lizitatzaile guztiei aldi berean jakinaraziko zaie; gainera, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. | La adjudicación deberá ser motivada y se notificará a los candidatos o licitadores y, simultáneamente, se publicará en el perfil de contratante. |
| Jakinarazpen horretan jasota geratu beharko da beharrezko informazio guztia, baztertutako lizitatzaileek edo izangaiek esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri ahal izan dezaten. Hain zuzen ere, ondorengo alderdiak jaso beharko dira: | La notificación deberá contener, en todo caso, la información necesaria que permita al licitador excluido o candidato descartado interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación. En particular expresara los siguientes extremos: |
| - Baztertutako izangaiei dagokienez, haien hautagaitza baztertu izanaren arrazoien azalpen laburtua. | - En relación con los candidatos descartados, la exposición resumida de las razones por las que se haya desestimado su candidatura. |
| - Esleipen-prozeduratik kanpo geratu diren lizitatzaileen kasuan, haien eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak laburtzen dituen azalpena. | - Con respecto de los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación también en forma resumida, las razones por las que no se haya admitido su oferta. |
| - Horrez gain, esleipendunaren izena, eta haren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, zeintzuengatik hobetsi baiten haren eskaintza, prozeduran onartu diren eskaintzak egin dituzten gainerako lizitatzaileek aurkeztu dituztenen aurrean. | - En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia a las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas. |
| - Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, esleipena formalizatzeko epea adieraziko da. | - En la notificación y en el perfil de contratante se indicara el plazo en que debe procederse a su formalización. |
| **24.- BEHIN BETIKO BERMEA.** | **24.- GARANTIA DEFINITIVA.** |
| Esleipendunak 1.500 €ko bermea jarri beharko du. Kontratua sinatzearekin batera . | El adjudicatario deberá prestar una garantía de 1.500€ |
| Berme hori honako bideetakoren bat erabilita era daiteke: | Esta garantía podrá prestarse en alguna de las siguientes formas: |
| a) Eskudirutan edo Zor Publikoko baloreetan; kasu bakoitzean, Lege hau garatzen duten arauetan ezarritako baldintzak beteta. Dirua eta jasotako baloreen ibilgetzearen ziurtagiriak Gordailu-kutxa | a) En efectivo o en valores de Deuda Pública, con sujeción, en cada caso, a las condiciones establecidas en las normas de desarrollo de esta Ley. El efectivo y los certificados de inmovilización |

| | |
|---|---|
| Orokorrean utziko dira, edo, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzen barruan dauden beren sukurtsaletan, Autonomia Erkidegoetako Kutxetan edo establezimendu publiko baliokideetan, edo Lege hau garatzeko arauek ezarritako moduan eta baldintzetan, ondorioak izan behar dituzten Tokiko Erakunde kontratatzaileetan. | de los valores anotados se depositarán en la Caja General de Depósitos o en sus sucursales encuadradas en las Delegaciones de Economía y Hacienda, o en las Cajas o establecimientos públicos equivalentes de las Comunidades Autónomas o Entidades locales contratantes ante las que deban surtir efectos, en la forma y con las condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan. |
| b) Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu establezimendu finantzario eta elkarren bermerako sozietateek emandako abal bidez –beti ere, Lege hau garatzen duten arauek ezarritako moduan eta baldintzetan–; abal hori aurreko a) puntuan adierazitako establezimenduetan utzi behar da. | b) Mediante aval, prestado en la forma y condiciones que establezcan las normas de desarrollo de esta Ley, por alguna de los bancos, cajas de ahorros, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España, que deberá depositarse en los establecimientos señalados en la letra a) anterior. |
| c) Kauzio-aseguruko kontratu bidez, alorrean jarduteko baimena duen aseguru-konpainiarekin kontratatutakoa, eta Lege hau garatzeko arauek ezarritako moduan eta baldintzetan. Aurreko a) puntuan adierazitako establezimenduetan entregatu behar da aseguruaren ziurtagiria. | c) Mediante contrato de seguro de caución, celebrado en la forma y condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan, con una entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo. El certificado del seguro deberá entregarse en los establecimientos señalados en la letra a anterior. |
| Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, berme-epea igaro eta kontratua behar bezala betetzen den arte. | La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato. |
| Berme horren bitartez erantzungo zaie azaroaren 8ko 9/2017Sektore publikoko Kontratuen Legeak jasotako kontzeptuei. | Esta garantía responderá a los conceptos incluidos en la Ley de Contratos del Sector Público, 9/2017, de 8 de noviembre. |
| **25.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.** | **25.- FORMALIZACION DEL CONTRATO.** |
| Esleipenaren jakinarazpena egiten denetik hamabost egun balioduneko epearen barruan formalizatuko da kontratua administrazio-agirian; agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. | La formalización del contrato en documento administrativo se efectuará dentro de los quince días hábiles siguientes a contar desde la fecha de la notificación de la adjudicación; constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. |

| | |
|---|---|
| Kontratua eskritura publikoan jaso dadila eska dezake kontratistak, eta bere kontura izango dira horri dagozkion gastuak. | El contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. |
| Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ezingo balitz kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu, Administrazioak erabaki lezake kontratua bertan behera uztea eta eratutako behin-behineko bermea bahitzea. | Cuando por causas imputables al contratista no pudiere formalizarse el contrato dentro del plazo indicado, la Administración podrá acordar la resolución del mismo, así como la incautación de la garantía provisional que en su caso se hubiese constituido. |
| **26.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.** | **26.- DERECHOS Y DEBERES.** |
| 26.1.- Bidania-Goiazko Udalak eta esleipendunak beren gain hartu beharrekoak –kontratuaren xedetik kausatik eratorrita–, Agiri honen, Klausula Teknikoen Agiriaren, azaroaren 8 ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta hori arautzen duten xedapen osagarrien arabera. | 26.1.-Son los adquiribles recíprocamente por el Ayuntamiento de Bidania-Goiatz y el adjudicatario, derivados naturalmente del objeto y causa del contrato, con arreglo al presente Pliego, al de Clausulas Técnicas y a la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017, de 8 de noviembre y disposiciones complementarias que la regulan. |
| 26.2.- Administrazio-kontratua. Esleipendunak nahitaez sinatu beharko du administrazio-kontratua formalizatzeko agiria Udalbatzak adierazten dion egunean. | 26.2.- Contrato administrativo. El adjudicatario queda obligado a suscribir en la fecha que le señale la Corporación Municipal el documento de formalización del contrato administrativo. |
| 26.3.- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga. Esleipenduna ez badago Bidania-Goiazko Udalean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda, esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan formalizatu beharko du bere alta. | 26.3.- Impuesto de actividades económicas. En el caso de que el adjudicatario no figure dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas por los conceptos correspondientes en el Ayuntamiento de Bidania-Goiatz, deberá formalizar su alta en el plazo de 10 días contados desde la fecha que se notifique la adjudicación. |
| 26.4.- Zerga-betebeharrak. Zerbitzua ematearen ondorioz galdagarriak zaizkion zerga-betebehar guztiak bete beharko ditu esleipendunak. | 26.4.- Obligaciones fiscales. El adjudicatario deberá cumplir con las obligaciones fiscales que le sean exigibles como consecuencia de la prestación del servicio. |
| 26.5.- Gizarte Segurantza. Esleipendunak langile | 26.5.- Seguridad Social. El adjudicatario deberá darse |

| | |
|---|---|
| autonomo gisa alta eman beharko du Gizarte Segurantzan, instalazioak ireki aurretik; horrela, Udalak ez du izango esleipen honetatik erator daitekeen batere erantzukizunik. | de alta en la Seguridad Social como trabajador autónomo, con anterioridad a la apertura de las instalaciones, eximiendo de este modo al Ayuntamiento de las responsabilidades que puedan derivarse de la presente adjudicación. |
| Zorrotz bete beharko du Gizarte Segurantzaren lan alorrean indarrean dagoen araudia, eta lan-istripuen kontingentziak eta gaixotasun profesionalak estali beharko ditu, dagokion mutualitatearen bitartez. | Habrá de cumplir estrictamente la vigente normativa laboral en materia de Seguridad Social, debiendo cubrir las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedad profesional a través de la Mutualidad correspondiente. |
| 26.6.- Erantzukizun zibileko asegurua. Esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruaren poliza aurkeztu behar du –egoki irizten dion Aseguru Konpainiarekin sinatutakoa–, 150.000 €-ko erantzukizun zibilia duena, bai eta kontzeptu horregatik ordaindutako primen ordainagirien kopiak ere. Kopia horiek kontratua sinatzean eta urte bakoitzaren hasieran aurkeztu beharko dira. | 26.6.- Seguro de responsabilidad civil. El adjudicatario deberá presentar la póliza del seguro de responsabilidad civil suscrita con la Compañía de Seguros que estime oportuno, por importe mínimo de 150.000 €, así como el duplicado de los recibos de pago de las primas satisfechas por tal concepto. La presentación de los duplicados deberá realizarse a la firma del contrato y al comienzo de cada anualidad. |
| 26.7.- Azpikontratatzeko debekua. Debekatuta dago edozein azpi-kontratazio egitea edo esleipenduna ordeztea, baldin eta Kontratazio-organoak ez badu horretarako berariazko baimenik ematen. | 26.7.- Prohibición de subcontratar. Queda prohibida cualquier suerte de subcontratación o sustitución del adjudicatario, salvo expresa autorización del Órgano de contratación. |
| 26.8.- Oinarriak eta kontratua egikaritzea. Kontratuaren xede diren prestazioak egikarituko dira Administrazio-klausula Zehatzen Agiri honetan eta Klausula Teknikoen agirian jasotako klausulak beteta, eta Kontratazio-organoak eman ditzakeen jarraibideen arabera. | 26.8.- Bases y ejecución. Las prestaciones objeto del contrato se ejecutaran con sujeción a las clausulas contenidas en el presente Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y en el de Clausulas Técnicas, así como conforme a las instrucciones que diera el Órgano de contratación. |
| 26.9.- Arriskuak. Kontratuaren xede diren prestazioen arriskuak esleipendunaren kontura izango dira, eta ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko galerengatik, matxurengatik edo kalteengatik. | 26.9.- Riesgo y ventura. La ejecución de las prestaciones objeto del contrato se realizaran a riesgo y ventura del adjudicatario, y este no tendrá derecho a indemnización por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados. |
| 26.10.- Eskritura publikoa. Esleipendunak eskatuko balu kontratua eskritura publikoan formalizatzea, bere kontura izango dira horren ondoriozko gastuak. | 26.10.- Escritura pública. En el supuesto de que el adjudicatario solicitase la formalización del contrato en escritura pública, serán de su cuenta |

| | |
|---|---|
| | los gastos que ello origine. |
| 26.11.- Langileak kontratatzea. Halaber, esleipendunaren ardura izango da bere eginkizunetan laguntzeko egoki irizten dizkion langileak kontratatzea, bai eta haiei ordainsaria ordaintzea, Gizarte Segurantzarako kotizazioa zein langile horien lanaren ondorioz sortzen diren era guztietako gastuei, zergei eta betebeharrei aurre egitea eta gaur egun dauden edo etorkizunean sor daitezkeen zerga, tasa eta arielak ordaintzea ere. Behar bezala egiaztatu beharko du Udalaren aurrean alderdi horiek guztiak betetzen dituela, eta, zehazki, kontratatzen dituen langileen Gizarte Segurantzarako kotizazioaren eskakizuna betetzen duela. | 26.11.- Contratación de personal. Igualmente serán de cuenta del adjudicatario la contratación del personal que considere idóneo para ayudarle en su cometido, así como su remuneración, cotización a la Seguridad Social y cuantos gastos, impuestos y obligaciones de cualquier clase se originen por la prestación de servicios de dicho personal y, toda clase de impuestos, tasas y arbitrios existentes en este momento o que puedan crearse en el futuro. El cumplimiento de todos estos extremos habrá de acreditarse debidamente ante el Ayuntamiento y en particular la cotización a la Seguridad Social del personal que contrate. |
| 26.12.- Aurretik aipatu ez diren esleipendunaren konturako gastuak. Esleipendunak ordaindu beharko ditu eraikinaren mantentze-lanen, dagoen ekipamenduaren mantentze-lanen, konpontze-lanen eta/edo ordezteen ondoriozko gastu arruntak zein eraikinak dituen ondasun suntsikorrenak. Eraikinaren mantentzeari eragiten dioten kasu berezietan (aldizkakoak ez direnean), aztertu egingo da gastu horiei aurre egiteko Bidania-Goiatz Udalak bere ekarpena egiteko aukera. | 26.12.- Gastos a cargo del adjudicatario que no se han señalado anteriormente. El adjudicatario se deberá hacer cargo de los gastos ordinarios de mantenimiento del edificio, equipamiento existente (mantenimiento, reparación y/o reposición) así como los bienes fungibles de que disponga el edificio. En caso de que se trate de un caso excepcional y no periódico que afecte al mantenimiento del edificio, se estudiaría la posibilidad de contribuir al mismo por parte del Ayuntamiento de Bidania-Goiatz. |
| **27.- ONDASUNAK ETA INSTALAZIOAK KONTRATISTAREN ESKU JARTZEA** | **27.- PUESTA A DISPOSICIÓN DEL CONTRATISTA DE LOS BIENES E INSTALACIONES** |
| Kontratua formalizatu ondorengo hamabost egun naturalen epearen barruan jarriko ditu Udalak kontratistaren esku zerbitzuari atxikitako instalazioak xehatutako ondasunak; emate horri dagokion akta jasoko da, eta esleipendunak eta kontratuaren arduradunak sinatu beharko dute. | Dentro de los quince días naturales siguientes a la formalización del contrato, el Ayuntamiento, pondrá a disposición del contratista las instalaciones adscritas a la prestación del servicio mediante el levantamiento de la correspondiente acta, que deberá ser suscrita por el adjudicatario, el responsable del contrato. |
| Halaber, esleipendunak ustiapenaren esku jartzen dituen ondasunen entregaren akta ere jasoko da; ondasun horiek *Udalaren jabetzakoak izatera pasatuko dira kontratua amaitzen denean.* | Asimismo, deberá suscribirse la correspondiente acta de entrega o puesta a disposición de la explotación de los bienes aportados por el adjudicatario y que *pasarán a ser propiedad del Ayuntamiento a la finalización del* |

| | |
|---|---|
| | *contrato.* |
| **28.- ZEHAPENAK ESLEIPENDUNARI.** | **28.- SANCIONES AL ADJUDICATARIO.** |
| Kontratuan xedatutakoaren urraketak arintzat, larritzat eta oso larritzat sailka daitezke, zerbitzua gauzatzerakoan esleipendunak egiten dituen arau-hausteen ondoreetarako. | Los incumplimientos del contrato, a efectos de infracciones que cometa el adjudicatario en ejecución de los servicios se clasificaren en muy graves, graves y leves. |
| 1. Oso larriak: | 1. Muy graves: |
| - Bi ez-betetze larri eginez gero. | - Incurrir en dos incumplimientos graves. |
| - Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bost egunetan zehar (jarraian edo ez) edo zazpi egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka. | - No ofrecer el servicio o no respetar el horario establecido, sin justificación ni permiso del Ayuntamiento, durante cinco días (continuados o no) dentro de un mismo mes o siete días en un periodo de tres meses. |
| - Kontratuaren xede diren ondasunen gaineko kalteak eragitea, baldin eta kontratistak horretarako intentzionalitatea izan badu eta zabarkeriaz jokatu badu. | - Producir daños sobre los bienes objeto del contrato existiendo intencionalidad o negligencia por parte del contratista. |
| - Zerbitzuaren erabiltzaileei eraso egitea edo haiekiko errespetua larriki galtzea. | - Agredir a los usuarios del servicio o faltarles al respeto gravemente. |
| - Zerbitzuarekiko zabarkeria larria. | - Negligencia grave con respecto al servicio. |
| 2. Larriak: | 2. Graves: |
| • Esleipena egiteko erabakigarriak izan diren konpromisoak ez betetzea. | • El incumplimiento por parte del contratista de los compromisos determinantes a la hora de la adjudicación. |
| • Inolako justifikaziorik gabe aldatzea klausulen agiri honetan zehaztutako zerbitzuak. | • Modificar sin justificación alguna los servicios determinados en este pliego de cláusulas. |
| • Instalazioei baimendu gabeko erabilerak ematea. | • Dedicar las instalaciones a usos no autorizados. |
| • Baimendu gabeko obrak edo aldaketak egitea. | • La realización de obras o modificaciones no autorizadas. |
| • Kontratatutako zerbitzua, osorik edo zati batean, | |

| | |
|---|---|
| lagatzea, azpierrentan ematea edo eskualdatzea, edozein modu edo tituluren baitan. | • Ceder, subarrendar o traspasar, todo o en parte, el servicio contratado, bajo cualquier modalidad o título. |
| • Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein arau-hauste. | • Cualquier otra infracción que suponga incumplimiento de las obligaciones contractuales esenciales. |
| • Eraikinaren erabilerak aldatzeari edo hobetzeari buruzko Udalaren aginduak ez betetzea, Administrazio jarduleak beharrezkotzat jotzen dituenean. | • Incumplimiento de las órdenes municipales sobre modificaciones o mejoras en el uso del edificio, cuando así se consideren necesarias por parte de la Administración actuante. |
| • Agiri honetan definitutako edozein zerbitzu ematean aldaketak egitea justifikatutako arrazoirik gabe. | • La alteración en la prestación de cualquiera de los servicios definidos en el presente pliego por causa injustificada. |
| • Zerbitzua ustiatzen hasteko agiri honetan ezarritako epea ez betetzea. | • Incumplimiento del plazo establecido en el presente pliego para el inicio de la explotación. |
| • Langileekiko lan edo gizarte alorreko betebeharrak ez betetzea. | • Incumplimiento en las obligaciones laborales o sociales en relación con sus trabajadores. |
| • Urtebeteko aldiaren barruan lau ez-betetze arin egitea. | • Incurrir en cuatro incumplimientos leves en el período de un año. |
| • Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bi egunetan zehar (jarraian edo ez) edo lau egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka. | • No ofrecer el servicio o no respetar el horario establecido, sin justificación ni permiso del Ayuntamiento, durante dos días (continuados o no) dentro de un mismo mes o cuatro días en un periodo de tres meses. |
| • Udalak eskatutako zerbitzuei eta kolaboratzeari uko egitea, eta dagokion lehentasunik ez ematea. | • Renunciar a los servicios solicitados por el Ayuntamiento y a la colaboración, y no concederle la prioridad correspondiente. |
| 3. Arinak: | 3. Leves: |
| • Ez-betetze arintzat joko dira agiri honetan ezarritako betebeharren eta aplikagarria den gainerako araudian larritzat jotzen ez diren gainerako ez-betetze guztiak. | • Se considerarán incumplimientos leves todos los demás incumplimientos de las obligaciones fijadas en el presente pliego y en la demás normativa aplicable no calificados como graves. |
| Baliarraingo Udalak baloratuko du aurreko | |

| | |
|---|---|
| paragrafoetan jasotzen ez den beste edozein faltaren larritasuna. | El Ayuntamiento de Baliarrain graduara cualquier otra falta que no esté incluida en los párrafos anteriores. |
| **Zehapenak:** | **Sanciones:** |
| - Arau-hauste arinetan, beti, ohartarazpena egingo da eta 150 € arteko isuna ere jani ahal izango da. | - En las infracciones leves se dará siempre una advertencia, y se podrá imponer una hasta 150 €. |
| - Arau-hauste larrietan 150 €tik 601 €ra arteko isunak jarriko dira. | - En las infracciones graves se impondrán multas entre 150 € y 601 €. |
| - Arau-hauste oso larrietan 601 €tik 1.503 €ra arteko isuna jarriko da eta kontratua amaitutzat ematea ere gertatu ahal izango da. | - En las infracciones muy graves se impondrá una sanción entre 601 € y 1.503 €, y también se dar por finalizado el contrato. |
| Esleipendunak zerbitzu publikoa zuzen ematea arriskuan jarriko lukeen arau-hauste larria egingo balu, Udalak ustiapenaren bahiketa agindu ahal izango du. | Si el adjudicatario cometiera una infracción que pusiera en peligro la correcta prestación del servicio público, el Ayuntamiento podrá llevar a cabo el embargo de la explotación. |
| Hiru ohartarazpen urte betean pilatzeak kontratua arnaitutzatematea ekarri ahal izango du. | La acumulación de tres advertencias durante un año, podrá acarrear la suspensión del contrato. |
| Era berean, bi arau-hauste larri edo bat oso larria egiteak kontratuaren amututzat ematea ekarriko du. | Del mismo modo, la comisión de dos infracciones graves o una muy grave podrá acarrear la suspensión del contrato. |
| Arau-hauste larri edo oso larriak behin eta berriro egiteak kontratua arnaitutzat ematea ekarriko du. | La repetición de infracciones graves o muy graves acarreará la suspensión del contrato. |
| Edonola ere, aipatu diren egoera horietan ez da kalte-ordainik jasoko Bidania-Goiatz Udalarengandik. | En cualquier caso, en dichas situaciones no se percibirá indemnización alguna por parte del Ayuntamiento de Bidania-Goiatz. |
| **Prozedura** | **Procedimiento** |
| Zigorrak jartzeko, dagokion aurkaritza espedientea abiarazi beharko da, eta aukera emango zaio interesdunari.<br>Alkateak izango du zigorrak jartzeko ahalmena. | Para la imposición de sanciones deberá tramitarse el oportuno expediente contradictorio, con audiencia del interesado.<br>Será competente para la imposición de las sancionas el Alcalde del Ayuntamiento. |

| | |
|---|---|
| Gauza bat da zigorra jartzea, eta beste bat zigorra eragin duten gertaerek kontratuan izan ditzaketen ondorioak eta emakidunak kalte-galerak ordaintzeko izan dezakeen betebeharra. | La imposición de las sanciones es independiente de las consecuencias de orden contractual que puedan derivarse de la comisión de los hechos que motivaren la sanción, así como de la obligación de indemnización de daños y perjuicios que puedan recaer sobre el concesionario. |
| Arau hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz egiteak kontratua suntsiaraziko du, eta ezgaitzat hartuko da emakiduna. | La reiteración de faltas graves o muy graves supondrá la resolución de la concesión con la declaración de inhabilitación del concesionario. |
| **29.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.** | **29.- RESOLUCION DEL CONTRATO.** |
| Kontratua suntsiaraziko da Agiri honetan adierazten diren kasuetan, eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean finkatzen direnetan; eta Kontratazio-organoari dagokio erabakia hartzea, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta. | La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en este Pliego Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 9/2017, de 8 de noviembre; y se acordará por el Órgano de contratación, de oficio o a instancia del contratista. |
| Kontratistaren erruz suntsiarazten denean kontratua, behin betiko bermea bahituko da; gainera, kontratistak kalte-ordaina ordainduko dio Administrazioari sortutako kalte-galerengatik, bermeaz gaindiko kopuruan. | Cuando el contrato se resuelva por culpa del contratista, se incautará la garantía definitiva, sin perjuicio de la indemnización por los daños y perjuicios originados a la Administración, en lo que excedan del importe de la garantía. |
| **30.- ZERBITZUA, ONDASUNAK, OBRAK ETA INSTALAZIOAK UDALAREN ESKUETARA ITZULTZEA** | **30.- REVERSIÓN DEL SERVICIO, BIENES, OBRAS E INSTALACIONES** |
| Kontratua amaitzen denean, Bidania-Goiazko Udalari itzuliko zaizkio –jabari osoan–, kargarik eta grabamenik gabe, zerbitzuari atxikitako eta inbentarioan jasotako Udalaren jabetzako obra, instalazio eta ondasun guztiak, bai eta kontratistak zerbitzua emateko erositakoak; horiek guztiak funtzionamendurako eta kontserbazioko egoera onean itzuli behar dira. Itzulera hori islatuta geratuko da jasotzeko akta formalean; akta hori izenpetu behar dute esleipendunak eta kontratuaren arduraduna den Zinegotziak, zerbitzua amaitu ondorengo *hamabost egun naturaleko* epearen barruan, eta Udal Batzarrari akta horren berri eman beharko zaio. | A la finalización del contrato, revertirán al Ayuntamiento de Bidania-Goiatz, en pleno dominio, libre de cargas y gravámenes, todas las obras, instalaciones y bienes de propiedad municipal adscritos al servicio y que figuren en el inventario, así como los adquiridos por el contratista para la prestación del servicio, en perfectas condiciones de funcionamiento y conservación, todo lo cual, quedará reflejado en el acta de recepción formal, la cual deberá ser suscrita por el adjudicatario, el Concejal responsable del contrato, dentro de los *quince días naturales* siguientes a la finalización de la prestación del servicio y, de la cual se dará cuenta al Pleno |

| | |
|---|---|
| Betebehar hori betetzen dela bermatzeko, kontratua amaitu baino sei hilabete lehenago, Udalak izendatutako kontratuaren arduradunak ondasunen eta instalazioen kontserbazio- eta mantentze-egoera aztertuko du eta kontratistari jakinaraziko dio ze konponketa egin behar dituen aurreikusitako baldintzetan mantentzeko, Udalari baldintza onetan itzultzeko helburuz.<br><br>Jarduketaren bat egin beharra dagoela ebatzi eta kontratistak ez badu hori emandako epearen barruan betetzen, Udalak berak egikarituko du beharrezkoa dena kontratuaren behin betiko bermearen kontura; horrez gain, kontratistaren ez betetze larriagatiko ebazpena ere eman liteke. Halaber, Udalak zerbitzua bahitzeko erabakia har lezake eta zerbitzua ematearen ardura aldi baterako –edo, are, kontratua amaitu arte– bere gain hartu; horretarako, kontratistaren langile eta material berberak erabil litzake. Horrez gain, baina, kalte-ordaina ere ezar liezaioke kontratistari, bere jokaerak Udalari sortu ahal izan dizkion kalte-galerengatik. | Ayuntamiento.<br><br>Para garantizar el cumplimiento de esta obligación, seis meses antes de la finalización del contrato, el responsable del contrato, designado por el Ayuntamiento, vigilará la conservación y mantenimiento de los bienes y de las instalaciones e informará sobre las reparaciones necesarias para mantenerlas en las condiciones previstas a fin de que reviertan en buenas condiciones de uso.<br><br>En caso de resultar necesaria cualquier actuación y que no se lleve a efecto en el plazo que se otorgue, se ejecutará lo necesario por el Ayuntamiento, con cargo a la garantía definitiva del contrato, sin perjuicio de la resolución del mismo por incumplimiento grave del contratista. Asimismo, podrá el Ayuntamiento acordar el secuestro, asumiendo temporalmente la prestación del servicio, incluso hasta la terminación del contrato, utilizando para ello el mismo personal y material del contratista, sin perjuicio de la indemnización que fuere procedente por los daños y perjuicios que tal conducta del contratista originare al Ayuntamiento. |
| | |
| | |

**Diligentzia.- Goiazko Herri Ostatua ustiatzeko, kudeatzeko eta mantentzweko Administrazio-kontratu berezia eraenduko duten Administrazio-klausula zehatzen agiria, 25 orriz osatua, 2018ko abenduaren 5ean eginiko Udal Batzarrean onartua izan da.**

**Bidania Goiatz, 2018ko abenduak 7.**

**Idazkari Kontuhartzailea**

**Ana Larrarte Kerejeta**